

EDITORIALA

3. zenbakia eskuetara orduko, berehala jabetuko zara zenbait aldakuntza gertatu direla bertan, aldizkariaren haria eta gaiak bide bere-tik jarraitzen diren arren.

Berrikuntza aipagarrienetakoa aldizkariaren egituran nahiz idazkeran aurki zenezake. Hau honela bideratu izan ahal da Donostiako Au- rrezki Kutxa Munizipalaren laguntza eta babesagatik. Gure eskerrona, be- raz, erakunde honi.

Bestalde, eta zenbait gutunetan jaso ditugun idarokizun edo sujerentziei jarraikiz, pertsona jakin batzurengana jo dugu, aldizkari ho- netarako idazlantxo bat presta zezaten. Eta Karlos Etxezurietaz gain, ora- ingoan Patri Urkizu idazleak aurreratu digu berea, eta aurrerantzean ere laguntzeko prest aurkitu dugu. Ongi etorria damaiogu, bada, lankide berri honi.

Eta, berriz ere, hemendik luzatu nahi diogu jendeari gure es- kabidea, sujerentziak zein idazlanak idatz eta bidal diezazkiguten.

Asmoak asmo, zenbaki hau nahiko atzeraturik plazaratzen dugu. Hori dela ta, agian zenbait artikulua desgaraiz datoz argitara, baina bere horretan utzi ditugu argitalpena gehiago luza ez zedin. Adikor izango za- retelakoan gaude.

Erredakzio Taldea

Udal Liburutegia / Lezo
ASKE : Lezoko aldizkaria

LT ASK - Erreser.07



2073919